

AP-3.HE / 2. eredua

- 1.- Mintegia amaitutakoan, ondokoak «*Hori izan da hori, hitzaldia!*» esan dizu, zer erantzungo zenioke?
 - a) Bai, ezinbestekoa!
 - b) Bai, hala-holakoa!
 - c) Bai, hala-moduzkoa!
 - d) Bai, egundokoa!

- 2.- Zein da ZUZENA?
 - a) Medikuntza genetikoaren aldean etika eta filosofian aditu asko azaldu dira.
 - b) Burtsa-artekari batek eman beharreko aginduaren kontrakoa emateagatik goranzko jauzia eman zuen Ibex-35 indizeak.
 - c) Zilegi al da CDak, bakoitzak bere etxean eta berari kabuz kopiazea?
 - d) Etxebizitza kontuaren esker dirua irabazi eta Zerga Aitorpenean abantailak izango ditudala ziurtatu didate.

- 3.- *Idatz iezadazu letraz fakturaren zenbatekoa, mesedez; hau da,*
 - a) bi mila eta bederatzehun eta laurogeita hamahiru euro.
 - b) bi mila bederatzehun eta laurogeita hamahiru euro.
 - c) bi mila bederatzehun eta laurogeitahamahiru euro.
 - d) bi mila eta bederatzehun laurogeita eta hamahiru euro.

- 4.- *Emakumeen parte-hartzea handituz doa kultura eta aisialdi guztietan.*
 - a) jarduera
 - b) azalera
 - c) adiera
 - d) edukiera

- 5.- *Sarean, beti dago internauta eskuzabalen bat ziberkide guztiei laguntza eskaintzeko prest.*
 - a) aho batez
 - b) bertan behera
 - c) musu truk
 - d) bota ahala

- 6.- *«El otro día» ustekabean agiri konprometituak topatu zituzten.*
- a) Lehen egunean.
 - b) Beste egun batean.
 - c) Beste egunean.
 - d) Lehengo batean.
- 7.- *Aldundia fiskalaren aurkako plana aurkeztekotan dabil. Izan ere, ugari dira dagokiena ordaintzen ez duten herritarrak.*
- a) kalte
 - b) truke
 - c) iruzur
 - d) birao
- 8.- Zein esalditan dago ortografia akatsen bat?
- a) Izugarritzko auzia izan zuen isun ziztrin bat zela eta ez zela.
 - b) Lehoi-kopurua murriztearen arrazoi nagusia, beren bizilekua pixkanaka desagertzen ari dela da.
 - c) Arau eta prozedura xume batzuk kontuan hartuta, ustekabe asko eragoz daitezke.
 - d) Opera jatorriz herrikoia zen, herri xehearentzako ikuskisun gisa jaio baitzen Italian.
- 9.- Zein da ZUZENA?
- a) Ekarrirako eskutitza berriro eramanarazi nau.
 - b) Informazio bulegoan ordu erdi itxaronarazi ziguten.
 - c) Morroi batek eserlekutik altxarazi zitzaidan berari lekua uzteko.
 - d) Udaltzainek autobus geltokiraino hurbilarazi naute autoa.
- 10.- *Argitaletxe horretan ez diote inoiz libururik argitaratzen, ez diote estimu handirik; are gehiago.....*
- a) begi-begikoa dute.
 - b) begiz jota dute.
 - c) begi-bistan dute.
 - d) begitan hartu dute.

11.- *Arantzak gauza bat pentsatu eta beste bat esaten du, bi aurpegiko pertsona da. Zein da azpimarratutakoaren SINONIMOA?*

- a) Zuria.
- b) Itxurosoa.
- c) Lotsagabea.
- d) Zatarra.

12.- *Ikerlari edo sortzaille guztiak bezala,*

- a) espazio-ontzien helburua horretan datza.
- b) izoztutako enbrioak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua txikia da.
- c) janaria gordetzeko ontziek minbizia eragin dezakete.
- d) egunerokotasunetik urrundu zen Txillida, tailerrean ordu ugari eman eta gero.

13.- *Lehendakariaren esanetan, honetan etorkinak gizarteratzeko egitasmo ugari bideratuko dute.*

- a) belaunaldi
- b) legegintzaldi
- c) agerraldi
- d) murgilaldi

14.- *Fenomeno naturala izanik ere, marea gorria, algen populazioa bat-batean izugarri haztea, marea beltza bezain kaltegarria izan daiteke itsasoko bizitzarentzat. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*

- a) Algen populazioa gehiegi haziz gero, marea beltza kaltegarria izan daiteke itsasoko bizitzarentzat.
- b) Marea beltza, gorria ez bezala, itsasoko bizitzarako kaltegarria izan daiteke, fenomeno artifiziuala delako.
- c) Fenomeno naturalak diren neurrian, marea gorriak zein beltzak kalteak eragiten dituzte itsasoko bizitzan.
- d) Fenomeno naturala izanagatik, marea gorriak, beltzak bezala, kaltea sor diezaioke itsasoko bizitzari.

15.- *Iraganetik, puntu baten inguruan biraka ari gara, etorkizunerantz mugitu ezinik.*

- a) urrundu heinean
- b) urrundu ezik
- c) urrundu beharrean
- d) urrundu ez ezik

16.- *Alferrik da ura joan eta gero presa egitea. Zein da esaera horren BALIOKIDEA?*

- a) Bistatik urrun, bihotzetik urrun.
- b) Usteak erdia ustel.
- c) Usoak joan, sareak heda.
- d) Urak dakarrena, urak darama.

17.- *Egunez bulegaria bazen ere, gauez «Drag-Queen» lanetan*

- a) zetzan.
- b) zegokion.
- c) ziharduen.
- d) zeritzon.

18.- Zein da ZUZENA?

- a) Programa profesionalei zuzenduko zaie, enpresen sorreran interesa duen edozeini baizik.
- b) Enpresek ez dute kobratzen erabilera denboragatik, konputagailuari transferitutako informazio kopuruagatik baizik.
- c) Hauen zat, ordenagailuak ez dira beraien bizitzako oinarritzako zati bat, baizik beraien egunerako jardunerako tresna bat gehiago.
- d) Ez da arriskutsua zure posta elektronikoak irakurtzea, eranskinak baizik irakurtzea.

19.- Zein da ZUZENA?

- a) Film hori ikustea merezi du.
- b) Ikastetxetan diziplina neurriak hartzea ondo daudela uste dut.
- c) Umekeriak alde batera uztea garaia da.
- d) Presaka ibiltzeagatik fotokopiak hartzea ahaztu zaizkit.

20.- *Luze jardun zuten adituek berezia behar duten lehengaez.*

- a) arreta
- b) gupida
- c) errieta
- d) gutizia

21.- *Internet euskararen alde lan egiteko bitarteko aproposa dela uste dute batzuek, euskaraz soilik aurki daitezkeen guneak sortzea ahalbidetzen baitu. Zein da BALIOKIDEA?*

- a) Batzuek Interneti egoki deritzote euskarari laguntzeko, euskara hutsezko guneak sortzea posible egiten duelako.
- b) Internet bitarteko egokia bada ere, euskararen aldeko guneak aurkitzea oztopatzen du.
- c) Euskaraz soilik aurki daitezkeen guneak sortu arren, ezinbesteko garrantzia dauka Internetek, euskararen alde egiteko batez ere.
- d) Internet euskararen aldeko tresna egokia izateaz gain, euskara hutsezko guneak aurkitzeko aproposa da.

22.- *Tenisean ez duela parekorik dio, edo,, hori sinetsarazi nahi digu.*

- a) horrenbestez
- b) ordea
- c) behinik behin
- d) hala ere

23.- *....., albaitaritzan erabiltzen diren antibiotikoek ia ez dute eraginik ingurumenean.*

- a) Batzuen esanetan horrela iruditzearren
- b) Animaliei sendagaiak emanez gero
- c) Gehienek susmatzen zutenaren aurka
- d) Ekologistei egokia iruditzen zaie gaia

24.- *Langileak ez dira giza baliabide bat, enpresaren barnean bere dohainak landu ditzaketen pertsonak baino, bai enpresa, bai langilea proiektu berean*

- a) gidaturik.
- b) ekoizturik.
- c) murgildurik.
- d) sakabanaturik.

25.- Zein da ZUZENA?

- a) Zuk esan duzunez da, bilera zortzietan eta areto nagusian egingo da.
- b) Ateko maratila apurtuta dagoen legez, zabalik utzi behar izan dugu.
- c) Aparatua garantian zegoen legez, ez nuen ezer ordaindu.
- d) Argi ez nuenez, ez diot inori esan, badaezpada ere.

26.- *Jatetxe horretara edonor sar esan ziguten, baina gu kanpoan gelditu ginen zapatilak jantzita*

- a) liratekeela/genuelako.
- b) litzatekeela/genituelako.
- c) zezakeela/generamalako.
- d) zitekeela/gindoazelako.

27.- Zein da ZUZENA?

- a) Datorren hilaren 23, asteartean, bukatuko da erreklamazioak aurkezteko epea.
- b) Datorren asteartean, hilak 23, bukatuko da erreklamazioak aurkezteko epea.
- c) Datorren hilabeteak 23, asteartean, bukatuko da erreklamazioak aurkezteko epea.
- d) Datorren hilak 23an, asteartean, bukatuko da erreklamazioak aurkezteko epea.

28.- *Langileen hautaketa prozesuak erabiltzen dituzte enpresaburuek.*

- a) galbahetzat
- b) galeratzat
- c) galbidetzat
- d) galtzailatzat

29.- *Alkoholemia kontrolean, 0,25 gradutik gora ematen duenari zirkulazio segurtasunaren aurkako delitua leporatzen diote; dagokionari isuna jartzeaz gain, gidatzeko baimena ere ken diezaiokete. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*

- a) Harik eta gidatzeko baimena kendu arte, zirkulazio segurtasunaren aurkako delitua ez da erabat leporatzen.
- b) Alkoholemia kontrolean, gidatzeko baimena kenduagatik, zirkulazio segurtasunaren aurkako delitua leporatzen dizute.
- c) Alkoholemia kontrolean, 0,25 gradutik gora emanaz gero, isuna jarri ez eze, gidatzeko baimena ere ken diezazukete.
- d) Gidariari leporatzen zaion delitua saihestearren, isuna jarri eta gidatzeko baimena kentzen dizute.

30.- *Erretiroa hartzen duzunean ere, ziur nago aurkituko duzula*

- a) zeri ekingo.
- b) zeri ekiterik.
- c) zeri ekin.
- d) zeri ekitea.

31.- *Kiroldegira al zoaz? Bada,*

- a) goraintziak eraman!
- b) on dagizuela taldekoei!
- c) eman oroitzapenak bertakoentzat!
- d) eskumuinak taldekoei!

32.- «*Itoko ahal zara!*» Pentsatu zuen bere kolkorako. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

- a) Bere barrurako pentsatu zuen ito ahal zela.
- b) Ito zedila desiratu zuen bere artean.
- c) Bere ustez, itotzeko arriskuan zegoen.
- d) Bere kolkorako itotzear zegoela pentsatu zuen.

33.- Nola esaten zaio pertsona bat hiltzean haren ondasunen jabe bihurtzen den pertsonari?

- a) Erraia.
- b) Arbasoa.
- c) Leinua.
- d) Oinordekoa.

34.- Zein da ZUZENA?

- a) Nazioarteko elkartasunak lortu duen garrantzitsu horrek behartzen gaitu etengabeko ahaleginak egitera.
- b) Herriko atsedeen eta elikadura-gune garrantzietan gida batean bildurik daude.
- c) Aldaketa garrantzizkoena aurrean dugula esan dezakegu, lana egiteko modua aldatzen ari baita egunetik egunera.
- d) Gure gizarteko funtziorik garrantziena komunikabideek betetzen dutela esaten da.

35.- *Hain ondo pasatu ditut oporrak,*

- a) ezen egin ahala gozaten bainuen.
- b) non indarberrituta etorri bainaiz lanera.
- c) non etorri bezain laster joan behar izan baitut lanera.
- d) ezen, ondorioz, diruz ezin hobeto bainabil.

- 36.- *Editoreak bilduma berriaren nondik norakoak azaldu zituen.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?
- a) Editoreak bildumaren ezaugarriak azaldu zituen.
 - b) Editoreak bilduma zein tokitatik joango den azaldu zuen.
 - c) Bilduma non hasi eta non bukatzen den azaldu zuen editoreak.
 - d) Bilduma nongoa zen azaldu zuen editoreak.
- 37.- *Itxuraz bestela izan daitekeen arren, globalizazioak ez dakar uniformetasuna, baizik eta aniztasunaren kontzientzia handiagoa.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?
- a) Aniztasuna, itxuraz globalizazioak dakarren uniformetasunetik dator.
 - b) Globalizazioak aniztasunaren kontzientzia dakar, bestela badirudi ere.
 - c) Itxuraz bestela bada ere, uniformetasunaren ondorioz globalizazioa anitzagoa da.
 - d) Ekartzekotan, globalizazioak uniformetasuna dakar, bestelakorik dirudien arren.
- 38.- Zein esalditan dago ondo erabilia «izan ere»?
- a) Askori entzuten zaie neurriak hartu behar direla; izan ere, gutxik jartzen dituzte gero bitartekoak.
 - b) Enplegu mailan ere bada desberdintasunik sexuen artean; izan ere, emakumezkoen lan-jarduera apalagoa da.
 - c) Lurralde bakoitzak bere aldetik jo zuen. Izan ere, proiektu elkartuek arrakasta izan omen zuten, baita banakakoek ere.
 - d) Estatuak zerbitzu publikoetan gastu eskasak baditu, enplegu eskasa sortzen du. Izan ere, defizit horrek lan merkatuan sartzeko laguntzen duelako.
- 39.- *Behin baino gehiagotan esan dizut nagusiaren aurrean ez dagoela ezer esaterik!*
Zein esan nahi du azpimarratutakoak?
- a) Ez dagoela ezer esateko.
 - b) Zer edo zer ezin daitekeela esan.
 - c) Ez dagoela ezer esan beharrik.
 - d) Ezin dela ezer esan.
- 40.- *Beñat mutil gaitua da ordenagailuak konpontzen, esango nuke.*
- a) gorena
 - b) iaioa
 - c) jaso
 - d) mailakoa

- 41.- *Gutxieneko baldintzak, ez da ituna berrituko.*
- a) ez beteta
 - b) bete ez izana
 - c) bete ezean
 - d) ez betez
- 42.- *Kontua da adituak ez direla bat etortzen teknologia berrien iragarpenetan. bat etorri izan direnean ere, inork aurreikusi gabeko kalteak etorri zaizkigu zenbait teknologiaren erabileratik.*
- a) Bidenabar,
 - b) Hurrenez hurren,
 - c) Are gehiago,
 - d) Berriz,
- 43.- *Beti berdin, honelakok hau esan duela, halakok beste hori eta azkenean denak haserre. Zeintzuk dira azpimarratutakoen SINONIMOAK?*
- a) berendiak/berekoak
 - b) urliak/sandiak
 - c) horregatik/hargatik
 - d) zenbaitek/makina batek
- 44.- *Ametsak egia bihurtuko esperantzan bizi dira asko eta asko munduan.*
- a) direna
 - b) direnaren
 - c) direla
 - d) diren
- 45.- *Zure sailera legelari berria heldu da eta aurkeztu egin dizute. Zer esango zenioke?*
- a) Urte askotan!
 - b) Eutsi, motel!
 - c) Hainbestean!
 - d) Agintaria beti agintari!

AP-3.HE / 2. eredua

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	D	2.	B	3.	B	4.	A	5.	C
6.	D	7.	C	8.	D	9.	B	10.	D
11.	A	12.	D	13.	B	14.	D	15.	C
16.	C	17.	C	18.	B	19.	A	20.	A
21.	A	22.	C	23.	C	24.	C	25.	D
26.	D	27.	B	28.	A	29.	C	30.	C
31.	D	32.	B	33.	D	34.	C	35.	B
36.	A	37.	B	38.	B	39.	D	40.	B
41.	C	42.	C	43.	B	44.	D	45.	A